

BERRI SAMIÑA

Seme leyala euskerarentzat
 baitare Donostiyarentzat
 itzkuntzalari on ta garbiya
 orra gure Serafin zer zan.
 Egin ditugu egin aldiyak
 euskeren alde emenchen biyak
 bañan, lantusko berri samiña:
 ¡gure Serafin Baroja il da!

JOSÉ ZAPIRAIN ETA IRASTORZA

* * *

¡OROITZ TRISTIA!

¡O! egan mundu onetatikan
 Serafin joan da Zerura,
 emen negar asko utzirikan
 Jaun aundiyaren ondora;
 euskaldun danak bateturikan
 begiratu zagun gora,
 eta esan oju egiñikan
 atoz, bai, gure besora.

CAYETANO S. IRURE

* * *

¡IL DA!

¡O! Serafin Baroja
 lagun isanduba
 irichi da suretzat
 eriotz orduba;
 ez neguen bada ni
 zuganuntz astuba
 opa dizut naguen
 lekutik Zeruba.

LUIS LATIERRO